

Udal talde politikoaren iritzia



EUSKARA, GURE HIZKUNTZA ETA GURE HISTORIA

Gure hizkuntzaz, euskaraz, ari garenean, gure iraganeko nahiz etorkizuneko historiaz ari gara; gure herriaz, gure tradizioez eta milaka urtetan mantendu ditugun balioez, bai eta etorkizunean mantentzen jarraituko ditugun horiez ere. Izan ere, herritarrei gure konpromisoa aurkezten diegunean, nabarmentzen dugu Getxo erronka dela, kosmopolita eta Euskadin errotua den aldetik; mundura irekia eta gure herriarekiko, euskararekiko, gure kulturarekiko eta tradizioekiko konpromiso handikoa. EAJk Getxon ere jarraitzen du lanean, Getxo, geroz eta globalagoa den munduan, nortasun propioarekin aurkeztu dadin. Euskararekiko konpromisoa betetzen dugu. Ekintzen eta aurrekontuaren bidez betetzen dugu, Getxoko talde nahiz eragile sozial eta kulturalekin egindako baterako lana errealitate bihurtuz, talde eta eragile horiek arreta berezia ematen baitiote euskarari. Guztira, 243.000 euro baino gehiago eman zaie dirulaguntzetan euskararen erabilera sustatzen dabilen elkartei. Bizarra Lepoan elkarteak ume eta gaztekin lantzen ditu aisialdia, kultura eta kirola; Egizuk eskaldun berriekin egiten du lan; ALBE



elkarteak, berriz, lan izugarria egiten du bertsolaritza sustatzen; eta Hirukak komunikazioa jorratzen du. Aurrekontuak gure konpromisoa argia islatzen du, eta bat egiten du beste ekimen batzuekin, hala nola Gidabaime-

na Euskaraz kanpainarekin, zeinaren bidez laguntzen baitaie gidatzeko baimenaren azterketa teorikoa euskaraz egiten dutenei. Eta noski, ia 2022ko apirilean gaudenez, HITZA ETA EKINTZA aipatu behar

dugu, Getxok 22. Korrikarekiko nahiz Euskaraldiko hirugarren edizioarekiko konpromisoa eta babes nabarmentzeko kanpaina edo leloa, alegia. Amaia Aguirre alkateak argi esan zuen kanpaina horren aurkezpena: «Horregatik egin nahi dugu bat gure altxorra den euskararen erabilera bultzatzeko xedez aurten egingo diren bi jarduerekin. Argi dago hizkuntza bat hitzez elikatzen dela. Hitzak beharrezkoak dira ohiturak aldatzeko, eta ekintzak beharrezkoak dira inguruan eragiteko. Horregatik, hain zuzen ere, "Hitza eta ekintza" leloa zabaldu nahi dugu». 22. Korrika astebete barru helduko da Getxora, eta EAJ/PNV udal-taldeak parte hartu du kilometro bat erosiz udaleko langileentzat. Ilusio handiz espero dugu ere Euskaraldiaren edizio berria; azaroaren erdialdean hasiko da, eta Getxoko Udalak, Eusko Jaurlaritzaren eta euskararen esparruko kolektiboen eskutik, oso berezia izango den programazioa aurkeztuko du. Gure hizkuntza eta gure historia den euskararekiko konpromiso erreal eta osoa dugu, eta hala jarraituko du etorkizunean.



EREAGAN DUTXA EGONGO DA URTE OSOAN ZEHAR



Popular taldeko kideok aspalditik eskatu dugu dutxa bat jartzeko Ereaga hondartzako blokeetan, neguan ere erabili ahal izateko, Portu Zaharrean dagoen bezalaxe. Gure arrazoia hau da: getxoztarrek geroz eta gehiago erabiltzen dituzte hondartzak urte osoan zehar, esate baterako surflarietako hondartzako boleboleko jokala-

riek, bainua edo partida amaitutakoan dutxa hartu behar baitute. Sospelan dutxak daude jada xede berbera lortzeko. Gainera, gutxieneko eragin ekonomikoarekin guztion bizitza errazten duen jarduketak da. Gobernu-taldeak azkenik entzun digu, eta dutxa bat jarriko du Ereaga hondartzako blokeetan. #esnatuGetxo



ERAISKETARI EZ! APIRILAREN 3AN HERRI-KONTSULTA ROMON!

Igandean oso hitzordu garrantzitsua dugu Romon. Lope de Vegako eraikinak eraistearen kontrako plataformak galdeketa antolatu du auzokideen iritzia jasotzeko asmoz gai honen inguruan. Udala izan beharko litzateke kontsulta hau antolatzen duena (Galdakaon eta Durangon ikusi dugun bezala, beste gai batzuen inguruan) baina Getxoko Udalak inposaketa nahiago du. EH Bildutik auzokideak parte hartzerantz animatzen ditugu, eta plataformari egindako lana eskertu nahi diogu, Romoko ondarearen eta bizitzaren alde egindako lanagatik.

*Oharra: aurreko Getxoberrian aipatu genuen Musika Eskolako langileek Txiki Otaegi plaza azpiko apartakalekia erabiltzeko lekuak zituztela,



baina informazio hori ez da zuzena. Barkatu okerra.



ARGIAREN PREZIOA MURRIZTEKO AKORDIO HISTORIKOA

Alderdi sozialistak, Pedro Sánchez presidentea buru duela, akordio bat lortu du Europar Batasunarekin, argiaren fakturaren prezioa murrizte aldera; izan ere, hiletan egon da igotzen, are gehiago Errusiak Ukraina inbaditu zuenetik. Neurri horren bidez, Sánchez presidentek **herritarrei**, industriari eta gure enpresei **elektrizitatearen prezioak murrizteko salbuespeneko neurriak ezarri** ahalko ditu. Era berean, produktuen prezioa murriztu ahalko da energiaren prezioa murriztearekin batera, eta horrek **eragin positiboa izango du Getxoko herritarrengan**. Lider

sozialistak Europar Batasunean gure herrialdearentzat lortu duen tratua bereziari esker lortu da akordioa, eta **energia-krisiari nahiz goranzko joera duen argiaren fakturaren prezioei irmoki erantzutea** ahalbidetuko digu. Ez da PSOEk Europar Batasunarekin Espainiarentzat onuragarria den akordioa lortzen duen lehenengo aldia; berreskuratze-funtzen sorrera eta txertoak eta gasa batera erosi izana Sánchez presidentearen lanari eta negoziatzeko gaitasunari esker Europak Espainiako interesari emandako erantzunen adibide argiak dira.



TRANS PERTSONEN ENPLEGARRITASUNERAKO NEURRI ERREALAK

Martxoaren 31 trans ikusgarritasunaren eguna da, eta aldarrakapen hori oroitaraztea geroz eta garrantzitsuagoa da, aintzat hartuta LGBTI kolektiboaren aurkako indarkeria-gertaerak modu kezagarrian areagotu direla azken urteotan, baita gure udalerrian ere. Baina indarkeria hori lan-esparruan ere nabaria da: trans emakumeen % 77k diskriminazioa jasan du lana

bilatzean. Hori dela eta, transexualen enplegagarritasunaren aldeko mozioa aurkeztuko dugu hilabete honetan, udalak egoeraren diagnostikoa egin dezan, eta laneratzeko beharizan berezia duten eta gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonentzat hartu ditza. elkarrekinpodemos@getxo.eus / www.elkarrekingetxo.blogspot.com